


# [b] BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

551. zkia.

XIII. urtea

2005eko azaroaren 18a


**Jose Antonio Osoro,** Musika Bandako zuzendaria

# «Herri gutxitan dago Elgoibarren bezalako musikari harrobia»

[ **GAZTAROA** ] JOSEBA OTAEGI • [ **KIROLA** ] BEHOBIA-DONOSTIAKO SAILKAPENA

# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era

**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



"Behin batean... Gabonak"

Idazlehiaketa
2005

Lanak jasotzeko epea
**AZAROA**ren **30**ean
amaituko da.

Informazio gehiago: **943 74 16 26** (Aiora)

ANTOLATZAILEAK:
ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
FORU ALDUNDIA
EUSKO JAURLARITZA



# ZOZOAK BELEARI...



**UXUE ALBERDI**

Joanean doana, badoa. Etorrian datorrena, badator. Eta bidearen erdian geratzen dena, zer? Badator ala badoa?

Kezkatu egiten nau gai honek, Imanol. Joan zen asteko Barrenen irakurri nuen Elgoibarren aire libreko lokutorio bat dugula: egunero, *elgoibartarrak* merkatu plazatik porruz eta arrautzaz betetako poltsaz beteta irteten diren bitartean, *etorkin* baten esku ilunak azoka aurreko telefono kabinako aurikularrari heltzen dio. Klik. Une horretan esperantza hari batek zeharkatzen ditu ozeano bat eta bi aurpegi. Ez zitzaidan gustatu pertsona hauei eman zitzaien tratua. Alde batetik, ez baitakit zergatik naizen ni *elgoibartarra* eta haiek *etorkinak*. Azkenaldian, Elgoibartik joan egiten naiz ni etorri baino gehiago, Bilboko etorkina naizelako inork hala deitzen ez didan arren. Noiz bihurtzen da etorri den bat herritar? Eta zeren arabera? Pariseko istiluen harira, *bigarren belaunaldiko etorkinei* buruz hitz egin da asteotan. Zer da hori? Akaso ama marokoarraren tripa haurduna Parisen egon arren, barnean ernetzen ari den ume txikia patera batean ari da Gibraltarreko itsasartea zeharkatzen? Nola izango da etorkina Parisen jaio eta ez bada inora joan?

*Egunero ordu-erdi luzez hitz egin dezakete etxekoekin... Semeari begi bat falta zaio...* Zenbat falta zaizkigu guri? Baina hori bai, Elgoibarren oso gustura omen daude, ez gaitzala behintzat kontzientziak gaztigatu. Zenbat begi falta zaizkigu guri?

> **«Noiz bihurtzen da etorri den bat herritar?»**
>
> UXUE

> **«Datozenei, gure herrira lotzeko soka eskaini behar diegu»**
>
> IMANOL

**IMANOL LARRAÑAGA**

Ez dakit zenbat begi falta zaizkigun, Uxue, baina dauzkagunak zabaldu egin beharko ditugu berandu baino lehen. Zuk diozun moduan, etorri badatoz, eta gero eta gehiago gainera. Eta begiratu ere egiten diegu, baina ez ditugu ikusten. Eta, badirudi, entzun ere ez diegula behar beste entzuten; bestela, Merkatu Plazako auditorioak ez ziren egun osoan okupatuta egongo.

Ondo dago datozenei lokutorioak eskaintzea; besterik ezean, han geratu direnen samina eta hona etorri direnen herrimina arintzeko modu bat izan daiteke. Ondo. Baina datozenak hemen daude, eta hemengoekin berba egiteko *lokutorioak* behar dituzte. Datozenei, gure herrira lotzeko soka eskaini behar diegu. Datozenak, gure hizkuntzara, ohituretara edo bizimodura arrimatzeko soka hartzera animatu behar ditugu. Izan ere, ozeanoa zeharkatzen duen esperantzaren haria mehea eta hauskorra da, Uxue. Ezin dira luzaroan hari horretatik zintzilik bizi.

Akaso, Paris inguruko *gazte miserableak* ere antzerako hariren batetik zintzilikatuta egongo ziren duela hiru astera arte. Baina haria eten egin da. Denak batera jausi dira (ala jauzi egin dute?), eta lurrikara sortu dute. Orain bai, orain ikusi ditugu. Gauak ilunak izan arren, sutan dauden autoetako sugarrek argitu dute ezkutuan zegoena. Ezkutuan gorde nahi zutena.

> «ATZERRITARRA GUGAN BIZI DA; ATZERRITARRARI IHES EDO ERASO EGITEN DIOGUNEAN, GEURE INKONZIENTEAN BORROKATZEN DUGU»
>
> Julia Kristeva

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

### Jaime Arrese

Jaime Arrese hil zabenian, nik 13 urte nitxuan. Ondo gogoratzen dot hilketak herrixan sortu zaban miña eta tristura. 25 urte geroago, "BARREN"era bialdutako karta batean eman digu azalpena Elgoibarko "ezker abertzaleak": alkate frankista eta faxista izan omen zen Jaime.

Hildakoari ez ezik, "BARREN"ekoei ere egurra. Animoak nere partetik "BARREN"eko kazetariei. Lan txukuna egiten dozue. Mila buelta emanda ere, ezin dot ulertu eta ezin dot onartu karta hori idatzi dabenen jokabidia. Jaime alkate frankista eta faxista zela esaten dabe, eta nik gogoratzen dot berak ipini zabala ikurriña Udaletxian, eta badakit euskara eta euskal kultura maite zitxuala, eta Ikastolaren alde jardun zala.

Umetan, arkupietan jolasian, atentzioa deitzen zidan bere seme nagusi Jaimek egiten zaban euskara dotore eta aberatsak. Gutako beste inork ez bezala, "hika" berba egiten zaban Jaimek askotan. Eta nik neure buruari: "Joe, horrek bai ederki euskeraz". Elizako arkupietan ibiltzen ginan orduan foballian. Alkate izandakoaren bi iloba, Jose Luis eta Oier, lagunak ditxuraz. Sekula ez diet gorrotozko berbarik entzun, eta neri beti egin jata deigarri. Historia txikiek ere, minuskulaz idatzitakoek, badaukate bere garrantzia.

Lehengora bueltatuta, Frankismoan alkate izatea ez zaban esan nahi derrigorrez bat zetozenik diktadurarekin. Alkate abertzaleak eta demokrazioaren aldekoak ere egon ziran, bai hemen eta bai Espainian. Jaime UCDkoa zan (Unión del Centro Democrático). Politikan ez zan abertzalia. Eta zer, ez al zaukan eskubiderik? Jakin nahi nuke zenbat elgoibartarrek gogoratzen daben alkate "frankista" eta "faxista" bezala. Ezagutzen dogu Euskalerriko historia. Lekziorik ez, mesedez. Familiak eta lagunek izan daben sufrimendua gutxi ez, eta 25 urte eta gero, berriz kondenatu dabe Jaime. Batzuren krudelkeria beldurtzeko modukoa da.

Gatazka politikoa kaletik ateratzeko ordua dala esan zaban Arnaldok Anoetan. Orduan, zertara dator krudelkeria hau? Hori al da elkar ulertu eta konpontzeko modua?

Politiko guzti-guztiek euki dabez erruak, hasi mutur batetik eta besteraino, baina Euskalerrixak bakia merezi dau, eta ahalegin horretan jokaera bihotzgabeak sobran daude. Darabilzuen gerrako hizkera horrek kalte baino ez dau egiten, eta mingarrixa da. Bakiak berbak desarmatzia eskatzen dau, danok egin behar dogu hori, guztion onerako. Orain bakia, bai horixe, baina ia bihotzetaraino heltzen dan, ze bestela gaizki biou.

**Aitor Zabaleta Arrieta**

### Txikizioa gelditu, amalurra defendatu

AHT-a, Enkarterrietatik pasako den Super Sur-a, Pasaiako eta Mutrikuko portuak, proiektu termikoak, Punta Luceron gordetzen den gas natural likuatua... Euskal Herriaren hazkuntza ekonomikoak hormigonatzea, zementatzea, autopista, portu, plataforma logistiko eta industrial gehiago eraikitzea exigitzen du... gure lurralde urri, eta beraz, pribilejiatu hau artifizializatzea. Politiko, enpresari eta gisa honetako diruzaleek "progesatzea, garatzea" txikizioarekin soilik lortu ahal izango dugula uste dute. Ironikoa!

AHT eta "Euskal Y"-ren proiektuak ez dira ez publikoki ezta instituzionalki eztabaidatu, ez dira ekonomikoki, ez sozialki, ez ingurugiroarekiko justifikatu, ez da beste tren-sistema alternatibarik sortu, ezta baloratu ere. Ezin dira horrela inposatu!!

Antzera gertatzen ari da Pasaiako Super Portuarekin. Super Portu batek super karreterak behar ditu. Zementoa eta txikizioa!! Proiektu hauek beste batzuk ekarriko dituzte atzetik. Eragin eta inpaktu ikaragarriak ingurugiroari, eta gizarteari. Euskal Herritik Euskal Hirira pasako gara, gure mendiak eta bailarak ahaztuko ditugu, presaka bizitzen ohituko gara ("presaka, beti presaka, inora ez iristeko"). Ingurugiroa txikituko dugu, eta honekin, egon ziur, gizartea. Geure teilatura harrika ibiltzea da!

Proiektu hauetan ezkutatuta dauden datuak ikaragarriak dira eta lerro gutxi hauetan ezin ditugu azaldu, baina jakinminak zirikatzen bazaitu, jakin bihar, larunbata 19, kalean mahai informatibo bat egongo dela. Besterik gabe, agertu eta gai hauen inguruan buruari eragitera gonbitea luzatzen dizuegu.

**Elgoibarko Gazte Asanblada**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.410 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

## TXALOAK




• Herritar batek Jaime Arreseren semeak eta J.J. Araolaza txalotu nahi ditu Elgoibarko Ezker Abertzalearen gutunari emandako erantzunagatik: "Bazen ordua norbaitek altu eta garbi esateko elgoibartar gehienok pentsatzen duguna. Nazkatuta gaude Ezker Abertzalearen gezurrak entzuten. Jarraikogazteak engainatuko dituzte gezur guzti horiekin, baina besteak nazkatuta gaude. Elgoibartarrak animatu nahi ditut euretaz pentsatzen duguna esateko. Bestalde, BARRENentzat kexa bat daukat, Ezker Abertzalearen gutuna BARRENen kontrakoa delako, eta ez dutelako ezer erantzun. Ez al duzue ezer esateko?"".

• Herriko kultur zaletu batek duela bi ostiral Herriko Antzokian izan zen kontzertuagatik Udaleko Euskara Saila txalotu nahi du: "majo gozatu genuen Kukuma taldearen doinu goxo eta alaiekin. Aspaldiko jaialdirik gustagarriena iruditu zitzaidan, izan ere, hain da ederra egiten duten musika...".

## KEXAK

• Jubilatuen Biltokiko Zuzendaritzatik ondorengo kexa helarazi digute: Jubilatuen irteeretan ez diete autobusei Plaza Handira sartzen uzten. "Jubilatuen Biltokitik antolatzen ditugun irteeretara joateko King-Kong-eko autobus geltokian elkartzen gara, ez digutelako uzten autobusa Plaza Handian sartzen. Azaroaren 9an egin genuen irteerara 104 lagun joan ginen, eta autobus geltokian sekulako txingor eta euri zaparradak harrapatu gintuen. Denok blai eginda sartu ginen autobusera. Eskertuko genuke Plaza Handian sartzen uztea, han behintzat arkupeak daude-eta".




Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera
Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570



# URRUZUNOREN *luma*

## Gaur ere ez da agertu

Gauero aditzen nuen bere ahots nahasia. Loaren amildegitik erori baino lehenagoko uneen jabe zen, nire irratitxoa belarri ostean jartzen nuelarik.

Eguneroko arnasa baino gogo gehiagorekin itxaroten nituen gauerdiko 5 minutu haiek. 5 minutu baino ez, ulertuko ez nituen hitzak, petralkeriak, gogoeta mamitsuak liseritzeko.

Txikiegia sentitzen nintzen bere ahotsaren oiartzunaren parean. Munstro dohakabe bat bailitzan sartzen zen nere ametsen porturaino. Bertan aingura bota eta goizeko ihintzak logelako leihoak zipristindu arte jarduten zuen gauza bera esaten: "hartuko al dugu garagardo bat lanetik ateratzean?"

Esnatu eta betaurrekoak janztean, egunari beste begirada batez begiratzen nion. Maite nuen ahots eskuragaitz hura, ametsgaizto bat baino ez zela sinistarazi nahi nuen.

Baina gaur ere ez da agertu. Lanetik atera eta pareko tabernan nire seigarren garagardoa hustutzean, amore eman eta etxera itzuli naiz esku hutsik.

***Sare Gurrutxaga***

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]




### INES SESMA

FADEK
ILEAPAINDEGIKOA

• **Zenbat kolore desberdin izan dituzu zure buruan?**
Azken 8 urteotan horia daramat baina denetarik izan dut.

• **Ile orrazkera aldatzeko beharra duen famatu bat?**
Albako Dukesa. Kolorea aldatu eta moztu egingo nioke.

• **Udazkenerako ile kolore bat?**
Kupre edo moka koloreak.

• **Ile lisua ala kizkurra nahiago?**
Biak ditut gustuko.

• **Zer ez zenuke egingo sekula ilean?**
Beltz kolorekoa jarri.

• **Zerk jartzen dizkizu ileak puntan?**
Gezurrek, ez zaizkit gustatzen.

• **Zein egoerak ematen dizu "kortea"?**
Ez naiz oso lotsatia, baina momentu batzutan lotsatzen naiz.

• **Elgoibarko zein lekuk behar du look aldaketa bat?**
Plaza Txikiak edo Merkatu Plazak.

• **Gizarteko zein ezbehar moztuko zenuke sustraietik?**
Gerrateak.

• **Ilea hilbeheran moztea komeni dela esaten da. Ilargiak ba al du ilearekin zerikusirik?**
Bai, jende asko etortzen da ilargiaren arabera ilea moztera.

## komikia

*Hil da gero... Butragueño eta Caminero*




*Kokoe 038*

## [AKORDATZEN NAIZ]



**MARI TERE IRAEGI**

1932an jaioa

# «Gazte-denporako kontuak»

Ni zazpi urtera arte Eibarren bizi nitzan, zazpi urtekin etorri nitzan Elgoibarrera bizi izatera. Gure aitta biajantia zan, eta seguramente hemen Eibarren baiño merkiaguak izango ziran etxiak. Alkilau egin zaban pisu bat, eta honaxe etorri giñan, gurasuak, nere anaixa eta ni. Hari kolpe haun-dixagua eman zion Elgoibarrera etortziak. Hamabi urte zakazen, lagunak Eibarren, eskolia ere han, eta gogorragua izan zan. Eskolan Eibarren jarraittu zaban, eta bazkaltzera amamanera juten zan. Neri ere kostau egin jatan hemen lagunak egittia. Amak kontatzen zaban sillan jarritta negarrez topau ninddula behin, Eibarren lagunak nakazelako eta hemen ez. Nere lehengusiña bat hemen bizi zan, ni baiño urtebete zaharragua, eta tiak bialdu zaban nerekin urtetzeko. Harek espabilau ninddun pixkat, eta gero ondo. Gaurko lagunak orduan egindakuak dira, lehengo moduan segitzen dogu, eta gauza ederra da.

Orduan Elgoibar oso diferentia zan. Oin dan moduan ikusitta, alde haundixa zakan. Akordatzen naiz San Migel bidian daguan basarri bateko bizilagunak zela pasatzen ziran kaletik gurdixakin. San Roke aldera juten ziran belar billa, eta gu gurdixan atzeko aldian jartzen giñan eta eurekin egitten gendun bide guztixa, estazioraiño. Jeneralian, mutilak jartzen ziran, baiña neskak ere egitten gendun gure ahalegiña. Ume mordo bat juaten giñan. Ez zaguan kotxerik, eta kalian trankil ibiltzen giñan. Umetako rekuerdo oso politta dakat.



## [GURE BERBAK]

### Esapide adierazgarrixak (8)

Gaurkuan beste esapide saill bat. Batzuk elkarrizketetatik etaratakuak dira; beste batzuk, nik neuk asmautakuak, betiere entzundako formetan oiñarrittuz. Baten batek esan leike erdarakadak dirala berba batzuk, baiña gure euskeran sustar sendo samarra egin dabenak dira, izatekotan ere, eta horregaittik hartzen dittut nik aintzakotzat.

- *Lehen grandia zuan motorra edukitzia, gero, eh!*
- *Hori da afana dabizuna kotxe berrixakin, gizona!*
- *Bart gustora ibilli nitzuan, baiña gaur demaseko ajia jakat!*
- *Hori dok, hori, alper zorrixa: etxok egun guztixan kolpe zorririk jotzen!*
- *Terriblia dok gure Patxi, eh! – Bai, bai, alper hutsa dok!*
- *Argi ibilli hadi, eh! Hartzia nahi ez badok!*
- *Berak egiñ neri faenia, eta gaiñera bera dator hartzekuekin!*
- *Haundixa dok ba! Oiñ ere zeozer gaizki egiñ al dot?*
- *Haura zuan bronkia, haura!*
- *Hik dakak baloria, hik! Gaberdixan kanposantora sartzia ere...*
- *Batek jakik noiz etorriko dan elurra aurten.*
- *Etxe hori urtietan egon dok abandonauta, eta jo jok azkenian behia!*

*Jesus Mari Makazaga*

**JOSE** *pinturak*
**(Txema)**
**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.**
**Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

**URKIDI** AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 · Elgoibar
Tel-Faxa: 943 74 18 91
ASEGURUAK

# JOSE ANTONIO OSORO MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIA

# «Herri gutxitan dago Elgoibarren bezalako musikari harrobia»

*Herrien arima ei da musika eta zuzendaria Musika Bandarena. Jose Antonio Osoro "Katxo"k 22 urte daramatza Udal Musika Banda zuzentzen eta 49 urte bertako kide izaten, 11 urterekin hasi baitzen saxoa eta klarinetea jotzen. Bandak 100 urte bete zituenean bera zen zuzendari eta 125 urte betetzen dituenean, hemendik 5 urtera, ziklo bat ixtea gustatuko litzaioke. Bien bitartean Santa Zezilia, musikarien egun handirako prestatzen ari da.*

**Betidanik ezagutu zaitut Bandako zuzendari.**

Bai, 22 urte etorriko dira laster. 1983. urteko Gabon Eguneko kalejira izan zen zuzendari moduan egin nuen estreinaldi ofiziala. Jo genuen lehen pieza ere akorduan daukat: "Altza Gaztiak!" Feliciano Beobide tolosarrak konposatutako Athleticken lehen ereserkia. Estraineko kontzertua, berriz, 84ko Errege Egunean zuzendu nuen: Herriko Antzokia beteta, entzun zitekeen isiltasuna... Denak zain zeuden, "ia zer egiten duen honek, ia nondik irtetzen daban". Zorionez ondo irten zen eta atzetik makina bat kontzertu etorri dira.



**Nola iristen da bat Bandako zuzendari izatera?**

Zuzendariorde postua hutsik zegoen, zuzendariak ni proposatu ninduen eta jendeak ontzat hartu zuen, besterik gabe. 8 edo 9 urtez izan nintzen zuzendariorde. Jose Zubiaurre "Valle"k zuzendari izateari laga zionean neu jarri nintzen zuzendari eta Txomin Mujika zuzendariorde. "Valle"k 54 urte eman zituen Bandan, hauetatik 27 zuzendari karguan.

**Zer eman dizu zuri Bandak?**

Niretzat gauza handia da atril gainean egotea, oso gustagarria. Poztasun handiak eman dizkit bandak, tartean haserreak pasa behar badira ere. Halere, %100a momentu onak dira. Banda barruan giro ona dago, ondo eramaten gera elkarrekin eta hori inportantea da. Gainera, gaztetasuna eta esperientzia uztartzen dituzten musikariak ditugu; 30 urte izan arren, gurekin 15 urte daramatzaten musikariak. Hori mesedegarria da.

**Zenbat urteko historia du Elgoibarko Udal Musika Bandak?**

120 urte bete zituen uztailaren 1ean, Ildefonso Lizerriturri organistak 1885. urtean fundatu zuen. 5 urte barru diamantezko ezteiak -125 urte- beteko ditu. Jaungoikoak nahi badu ospatzeko moduan izatea nahi nuke. Bandak 100 urte bete zituenean neu nintzen zuzendari eta 125 urte betetzean hala izaten jarraitzea nahi nuke. Gero lagatzeko ordua iritsiko da, beharbada.

**Zer doai behar ditu zuzendari batek?**

Obrak ezagutu eta ikasi, musika asko entzun eta beste zuzendari batzuengandik ikasteaz aparte, funtsezkoena, banda amateur batean bederen, ezker esku ona edukitzea da. 54 laguneko talde batean denerako jendea dago, pentsamolde aniztasun handia. Arrazoi bategatik edo besteagatik denak ez dira beti entsegu guztietara etortzen... "Vallek" iragarri zidan; "pazientzia handia beharko duzu, momentu txarrak eta onak pasako dituzu, baina jendea eramaten eta tratu ona edukitzen jakin behar da. Hortxe dago koska eta guztiaren oinarria".



**«Niretzat gauza handia da atril gainean egotea»**

**Inoiz kosta al zaizu Bandarako musikariak topatzea?**

Herri gutxitan egongo da Elgoibarren dagoen moduko musikarien harrobia. Musika Eskolari esker, batipat, 60-65 musikariren artean aukera ditzakegu Bandako partaideak. Gainera, heziketa bete-betearekin eta garantia guztiekin datoz. Elgoibarrek gisa honetako zentro bat edukitzeko zorte handia dauka. Bandarako instrumentistaren bat behar dugunean Musika Eskolara egiten dugu eskabidea eta irakasleek aukeratzen dute nor den hobekien dabilena. Guk ez dugu eskurik sartzen.

**Instrumentu guztiek ez dute eskabide berdina izango, ala?**

Instrumentuen orekarekin dugu arazo handiena. Futboleko konparazio bat jartzearren, denek aurrelariak izan nahi dute. Musika Eskolako ikasle gehienek melodiazko instrumentuak: saxofoia, klarinetea, tronpeta, e.a. aukeratzen dituzte. Aldiz, instrumentu laguntzaileak: bonbardinoa, bajua, tronpak, e.a inork ez ditu ikasi nahi. Alabaina, oreka beharrezkoa da eta instrumentu baxuok bandaren oinarria dira, autoarentzat gasolinaren parekoa, konpasa nola eraman markatzen baitute. Euskal Herri guztian ematen den arazoa da, ez soilik Elgoibarren.

**Zeren arabera aukeratzen duzue kontzertuetako egitaraua?**

Gustu guztietarako koloreak eskaintzen saiatzen gara. Melomanoek oberturak edo poema sinfonikoak jo ditzagun nahi dute. Gazteenek pieza modernoak edo filmeetako musika eskatzen digute. Santa Zeziliako kontzerturako, esaterako, "Beatles colleccion" jotzeko eskatu digute. Beti gaude katalogoetan ateratzen diren pieza berrien peskisan. Musika eskolako ikasleak ere etortzen dira. Azkenik fijoak daude; joan deneko 40 urteetan bandako kontzertuetara hutsik egin ez dutenak. Eibartik eta Zestoatik kontzertu guztietara etortzen dira batzuek. Oso pozik gaude jendearen jarrera eta erantzunarekin. Batezbeste 350 lagun etortzen dira kontzertuetara.

**Pieza bakoitza aurkezten duzue.**

Bai, gure kontzertuen bereizgarrietako bat da. Txomin Mujika artista bat da. Elgoibarren zortekoak gara holako kristaua edukitzeaz. Pieza modernoak edo zailenak ulertzeko pista asko ematen ditu bere azalpenekin.

**Txarangaren sorreran parte hartu zenuen, ezta?**

Txaranga "Katxito" izan zen Elgoibarren atera zen lehenengoa 1964an, Mausitxa baino lehenago (Mausitxa 70ean). Koadrilako lau lagun saxoa, bonbua eta kajia joz atera ginen kalera, zarata piska bat ateratzera. Gero Mausitxan ere egon nitzan.

**Gelatxorekin ere makina bat urtean aritua zara.**

Gelatxorekin, Angiozarko itsuekin, bere semeekin, Markosekin, Manuel Iztuetakin... soinujoliak danak pasatu ditut. Nik saxofoia jotzen naban. Leku askotan jo dugu Gipuzkoa eta Bizkaian. Bi edo hiru talde ibiltzen ginen zapatu domeketan bodaz boda. Urtian igual 40 ezkontza egingo genituen eta erromerixak beste hainbeste.

**«Instrumentuen orekarekin dugu arazorik handiena»**



## [ PROTAGONISTA ]



### Joseba**Etxeberria**

Joseba Etxeberriak lehen mailako 350. partida jokatu zuen Spanyolen aurka. 1995eko urtarrilaren 29an egin zuen debuta Etxebek Realarekin. Orduan ere Spaynolen aurka jokatzea tokatu zitzaion eta partida amaitzeko bost minuturen faltan sartu zen zelaira, Iñigo Idiakez ordezkatuz. Athleticen dagoenetik ligako 342 partida jokatu eta 89 gol sartu ditu. Etxeberriak eta Athletic zaleek ez dituzte une gozoak bizi, sailkapeneko azken postuan baitaude. Zulotik irteteko zorterik onena opa diogu jokalari elgoibartarrari.

## [ NOTIZIA ]

# Deba da Gipuzkoako ibai kutsatuena Greenpeace-en ikerketa baten arabera

Greenpeace erakundeak Euskal Herriko ibaien inguruko ikerketa bat egin du, eta horren arabera, Deba ibaia da Gipuzkoako kutsatuena. Greenpeace-koek azaldu dutenez, ibaira botatzen diren hondakin toxikoek eta ingurumenak jasaten duten presio demografikoaren ondorioa da hau. Deba ibaiarekin batera, Urola eta Urumea ibaiek daukaten garbiketa falta ere aipatzen da.



**Depuradora falta**

Greenpeacek depuradora falta aipatzen du kutsadura honen arrazoi nagusi moduan, izan ere, beste eskualde batzuetako ibaien egoera asko hobetu da depuradorei esker. Deba ibaiaren garbiketa proiektuan lau depuradora aurreikusten dira. Momentuz Debakoa bakarrik dago martxan. Bergara eta Elgoibarko depuradorak obretan daude, eta Arrasateko obrak oraindik ez dira hasi.

## [ ZENBAKIA ]

**500**

Galizako Kultur Etxeak antolatuta Magosto Eguna ospatu zen joan zen larunbatean, eta bertan Ourenseko Rios herritik ekarritako 500 kilo gaztaina banatu zituzten. Eztarria bustitzeko Riveiro ardoa ere banatu zuten, 275 litro inguru. Herritar ugari gerturatu ziren, eta ez zen gaztaina bat bera ere sobratu.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Gipuzkoako 100 gaixo inguru bildu ziren joan zen igandean, azaroaren 13an, Elgoibarren. Azpeitia, Azkoitia, Zumaia, Zarautz, Orio, Getaria, Zestoa eta Elgoibarko gaixo eta euren laguntzaileak etorri ziren. Eguerdiko 12:00etan meza izan zuten Parrokian, eta ondoren, Sigma jatetxean egin zuten bazkaria. Urtero elkartzen dira, eta bolatokian ateratzen diegu argazkia, baina aste honetan sekulako euri zaparrada ari zuen, eta elizako arkupeetan bildu genituen. Irrifartsu ageri dira denak argazkian.

# Errespetua eskatu du Udalak Plaza Txikiko saltzaile eta erosleentzako



Elgoibarko Udalak errespetua eskatzen du ostegunetan beren salmenta postua Plaza Txikian jartzen duten saltzaileentzat eta bertara erostera hurbiltzen diren erosleentzat. Udaletik esan dutenez, "Plaza Txikiko merkatu txikiak ondo funtzionatzen du, salerosketak erritmo ona du, eta herritarren eskari-eskaintzak oso ongi betetzen dira". Honenbestez, Elgoibarko Udalak "egoera normalizatu honi inork traba gehiago ez jartzeko, eta saltzaile nahiz erosleekiko jarrera mehatxagarriak eta gogorrak erabat baztertzeko" deia egin du.

**Plaza Txikia, baimendutako azoka**

Udalak argitaratutako prentsa oharrean esaten denez, Plaza Txikikoa da baimendutako azoka bakarra. Gauzak honela, Udal iturrietatik jakinarazi digutenez, "Udaltzaingoak bere egitekoa betetzen du, baimendu gabeko beste edozein tokitan salmenta galaraziz, araudia betetzen ez duenari materiala konfiskatuz, eta jabeei kendutako gauzakiei buruzko akta entregatuz". Saltzaileek jarritako salaketei buruz, "lapurretari buruzko edozein denuntzia bidegabekoa bezain itxuragabekoa da" esan dute udaletxetik.

## Elgoibarren bi neska gazte bortxatzeagatik 60 urteko kartzela zigorra eskatu dute hiru mutilentzat

Joan zen asteartean, azaroaren 15ean, hasi zen Elgoibarren 14 urteko bi neska bortxatzeagatik, hiru mutil portugaldarren aurkako epaiketa, Gipuzkoako Audientzian.

Hasiera batean, joan zen hilabetean hastekoa zen epaiketa hau, baina atzeratu egin zen. Adin txikiko neskak mozkortuta zeudela bortxatzeaz salatzen dituzte hiru mutil hauek, eta fiskalak 60 urteko kartzela zigorra eskatzen du.

Gertakari hau 2004ko otsailaren 7an gertatu zen, 14 urteko bi neska ermuarrak etxera joateko unean. Dirudienez, 19 eta 24 urteko bi mutil portugaldarrek autoan hartu zituzten bi neskak, baina bidean gelditu egin ziren eta Elgoibarrera itzuli ziren berriro.

Fiskalak esandakoaren arabera, neskak mozkortuta zeudela aprobetxatuz, lehenengo bi mutil hauek bortxatu zituzten neskak. Gero, 27 urteko lagun batekin elkartu ziren, eta honek ere, gauza bera egin zuela adierazi du.

Gertakari hauen ostean, adin txikiko bi neskek laguntza psikologikoa behar izan dute.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Bide Eginez prozesua

Herritarren Batasunak lau urtetik behin egiten duten barne eztabaida hasiko du, Bide Eginez izenarekin. Prozesu honen helburuak ahalik eta parte hartze zabalena, ekarpen politiko berritua aurkeztea eta Batasunaren proiektu politikoa sendotzea izango dira. Prozesu honetan bi batzar egitea proposatzen dute. Lehenengoa joan zen azaroaren 5ean izan zen, eta bigarrena azaroaren 26an izango da, goizeko 11:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Ondoren Kimetz Elkartean bazkaria egingo da. Prozesuari amaiera emateko urtarrilaren 21ean Batasunaren I. Nazio Biltzarra egingo da.

### Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko hiru txeke banatu dituzte Merkatu Plazako saltzaileek. Maite Alvarez, Josefa Gonzalez eta Rosario Amestoy izan dira irabazleak. Hiru emakume hauek erosketa txeke bidez jasoko dute saria, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute.



### Amnistiaren aldeko zozketa

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak urtero antolatzen duen elkartasun zozketako zenbaki sarituak atera dira. Urtero legez, urriko azken astelehenean, Gernikan egiten den ferian egin zen zozketa. Hauek dira zenbaki sarituak:

045784: Furgoneta
014088: Bidaia bat Argentinara
102464: Ordenagailu portatila

Erlijioak ez duela batazbesteko notarako balioko erabaki du Espainiako Gobernuak.

# Erlijio ikasgaiak notarako balio beharko lukeela uste al duzu?

**Mª CARMEN VILLANUEVA**
Okina
48 urte



“Bai. Lehen ere ikasten genuen erlijioa eta ez zen ezer pasatzen. Denetarik ikasi behar dugula uste dut, kultura maila altuagoa lortzeko, eta notarako kontatu behar du.”

**ALBERTO LUQUE**
Erreminta makinako langilea 27 urte



“Bai. Nik erlijioa ikasgai modura eduki nuen ikasle garaian, eta gainontzeko ikasgaiek bezala, notarako kontuan hartu behar dela uste dut.”

**ROSA Mª MATEO**
Etxekoandrea
30 urte



“Ez. Gaur egun erlijioa aukerako ikasgaia izan beharko litzateke, norberak erabaki dezala ikasi nahi duen edo ez. Ados nago Gobernuaren erabakiarekin.”

**J. ANTONIO FERNANDEZ**
Fabrikako langilea
32 urte



“Aukerako ikasgaia izan beharko litzatekeela uste dut, baina aukeratzen den momentuan, notarako balio beharko luke, gainontzeko ikasgaiek bezalaxe.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Odol emailea al zara?

### BAI %30

“Bai, orain dela 15 bat urtetik, eta normalean urtean behin ematen dut odola. Noizbait geuk ere beharko dugu eta besteena jaso ahal izateko, lehenengo norberak ematea da koherenteena.”

### EZ %70

“Ez, orratzek izugarrizko ikara ematen didatelako. Hala ere, ni baino ausartagoak joan daitezela odola ematera, goiz edo berandu denok beharko dugu-eta, agian.”

Datorren asterako.... Greanpeace-en arabera, Deba ibaia da Gipuzkoako kutsatuena.
**Bailarako 4 depuradorek, Apraizkoa barne, garbituko al dute ibaia?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!



# JUAN MARI MENDIZABAL

## 18/98 SUMARIOAN AUZIPETUA

# «Amorru eta lasaitasun artean bizi ditugu epaiketa aurreko uneak»

*1998. urtean Baltasar Garzon epaileak hasitako 18/98 sumarioan auzipetutakoen kontrako epaiketak hastear daude. Horien artean dago Juan Mari Mendizabal elgoibartarra. EKINeko ardura nazionaletan lan egiteagatik ETAko partaidea izatea leporatzen diote. Epaiketaren aurreko uneak nola bizi dituen kontatu digu.*

**Azalduko al diguzu zer den 18/98 sumarioa?**

1998. urtean Baltasar Garzon epaileak hasitako Ezker abertzalearen aurkako operazio politiko, polizial eta juridikoa da: ETAk ezker abertzale guztia kontrolatzen duela adierazten da sumario honetan eta ondorioz, erakunde politikoetako kide guztiak haren zerbitzura gaudela esaten dute. Bere azken helburua, testuinguru politiko oso zehatz batean, hau da, gatazkari konponbide demokratikoa bilatzeko ahaleginak egiten ari diren momentu honetan, Euskal Herriaren askapen eta eraikuntza nazionalaren aldeko lana eta borroka geldiaraztea da.

**Zer leporatzen dizute zuri?**

EKINeko ardura nazionalaetan lan egiteagatik ETAko partaidea izatea leporatzen didate. 15 urteko kartzela zigorra eskatzen du fiskalak niretzat, eta kasurik txarrenean kartzelara joan beharko nuke.

**Epaiketa azaroaren 21ean hasiko da. Noiz izango da zure txada?**

Gure sumarioan 59 lagun gaude, eta denok batera egon behar dugu epaiketan, honek irauten duen bitartean. Esan digutenaren arabera, epaiketa honek luze joko du.

**Lehenago ere kartzelan egondakoa zara. Beldurra ematen al dizu berriz itzultzeak?**

Badakigu kartzelara joateko arrisku hori hor dagoela eta datorrena hartzeko prest egon behar dugu.

**Zuk eta zure ingurukoek nola bizi dituzue epaiketaren aurreko momentuak?**

Badakigu zer dagoen eta amorru eta lasaitasun artean bizi ditugu epaiketaren aurreko uneak.

> **[«15 urteko kartzela zigorra eskatzen du fiskalak niretzat»]**

**Jarrai, Haika eta Segiren aurkako epaiketa udaberrian izan zen. Hura ikusita zer espero duzu hastear dagoen epaiketetan?**

Epaiketaren traszendentzia politikoa argia da: konponbide demokratikoaren aldeko testuinguru politikoan emango da, ezker abertzalearen jarduera politikoa galarazi nahi dute, baina argi dago ezker abertzalearen jardunak Euskal Herrian presente jarraitzen duela eta jarraituko duela oraindik ere. Errealitate horren aurrean estatu espainolak eta agінteko alderdiek erasoarekin jarraituko ote duten ala konponbide bila jarriko diren ikusteko dago oraindik gaur egun, eta 18/98 sumarioko epaiketak, beste gauza askoren artean hori ere erakutsiko du.

**18/98 sumarioaren kontrako mugimenduak, 18/98+ taldeak, Kaiera Ibiltaria abiatu zuen. Zer da Kaiera?**

Epaiketa hauen kontrako jarrera Euskal Herrian oso zabala da, eta hori kaleratzeko modu bat izan da Kaiera Ibiltaria. Arrazoi oso desberdinekin jende mota desberdinak 18/98 sumarioaren kontrako jarrera azaldu du. Epaiketaren aurkako oposizio zabal horrek aurretik ere deitu ditu ekimen arrakastatsuak, eta aurrera begira ere beharrezkoa izango da, izan ere testuinguru politikoa argitzen joateko elementuetako bat denez, aldaketa politikoaren beharra defendatzen dugun guztiok posizioa hartu eta estatuaren asmo hauek geldiaraztea beharrezkoa da.

## IRAKASLEARI azterketa

ARANTZA ZUBIZARRETA

OHOko irakaslea



**1 Zergatik irakasle?**
Txiripaz. Erizaina izan nahi nuen, baina orduan ezin izan nuen egin. Urtebetez irakaskuntzan sartzea erabaki nuen eta bertan gelditu naiz. Ikasleek bizipoz handia ematen didate.

**2 Zein dira irakasle on batek ezaugarriak?**
Pazientzia handia eta umeak gustuko izatea.

**3 Ikasleei nota txarrak jartzea esaten duzuen bezain zaila al da?**
Bai, hor irakaslearen frakaso txikia ere sartzen da, ez badiozu mezua ondo ematen berak ez du ondo erantzuten.

**4 Ikasle garaian gorroto zenuen ikasgaia?**
Matematika, ez nuen ezer ulertzen.

**5 Erabiltzen al zenuen txuletarik azterketetan?**
Ez, oso urduri jartzen nintzen, aurpegian igartzen zitzaidan.

**6 Zein izan da ikasle bati jarri diozun zigorrik gogorrena?**
Batzutan beharrezkoa den arren, ez ditut gehiegi zigortzen.

**7 Irakasle ez bazina?**
Erizaina, dudarik gabe.

**8 Zein politikori jarriko zenioke 0 nota?**
Bush-ek merezi ditu zenbait kalabaza.

## NOLAKO ENBORRA... halako ezpala





| GALDERAK | ANE LASKURAIN ama | UXUE MANZISIDOR alaba |
| --- | --- | --- |
| 1. Mendia ala hondartza? | 1. Biak, orain mendira joaten gara gehiago | 1. Hondartza. |
| 2. Hotzari aurre egiteko onena... | 2. Ondo jantzi eta barruan ibili. | 2. Txamarra potoloa jantzi. |
| 3. Zer eskatuko diozu Olentzerori? | 3. Ez dakit, datorrena gustura hartuko dut. | 3. Oraindik ez dut pentsatu. |
| 4. Ibiltzen al zara interneten? | 4. Bai, baina aspaldian ez naiz ibili. | 4. Ordenagailuan bai, baina interneten ez. |
| 5. Ba al daukazu sakeleko telefonorik? | 5. Bai, baina ez dut gehiegi erabiltzen. | 5. Ez, baina gustatuko litzaidake. |
| 6. Reala ala Athletic? | 6. Reala. | 6. Reala. |
| 7. Irratia ala telebista? | 7. Irratia, telebista ikusteko ez dut astirik. | 7. Sofan jarrita telebista ikustea. |
| 8. Ikusi duzun azken pelikula? | 8. "La madre del novio" Herriko Antzokian. | 8. "Adar txiki", Ikastolatik joan ginen zinera. |

## TXIKI inkesta

### Zein lekutan egingo zenuke piercing edo tatuajea?



**Ander Ortega**
DBH 1

Piercing-a bekainean jarriko nuke, eta tatuajea lepoan egingo nuke.



**Jone Larrañaga**
DBH 1

Piecing-a aurpegiko zenbait ataletan jarriko nuke: ezpainetan, sudurrean, edo aho azpian. Tatuajea orkatilan.



**Alazne Martinez**
DBH 1

Belarrian bi piercing jarriko nituzke eta sudurrean beste bat. Orkatilan sorgin bat tatuatuko nuke.



**Cristian Gala**
DBH 1

Piercing-a bekainean jarriko nuke, eta sorbalda gainean tatuaje bat egingo nuke.

## LEHIAKETA

### Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna: ..............................................................

..............................................................

Izen abizenak: ..............................................................

Telefonoa: ..............................................................

**SARIA**
Elhuyar-ek eskainitako
"Gipuzkoa zure esku"
mahai jokoa + CD-ROMa



AURREKOA:





Irabazlea: **Lide Baz**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARRENera ekarri edo posta elektronikoz bidali:
barren@elgoibarkoizarra.com

# GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

## Ioseba Otaegi

Phineas Fogg-ek, Julio Vernek sortutako pertsonaiak, 80 egunetan eman zion munduari bira. Trena, globoa, elefanteak... eskura zuen edozer erabili zuen garraio moduan. Verneren irudimenak eta etorkizunari aurrea hartzeko zuen gaitasunak parekorik ez zuen arren, gaur egun askoz errazagoa da munduari bira ematea. Ioseba Otaegi elgoibartarrak lagun alemaniar batekin eman dio munduari bira, hilabete eta erdi pasatxoan. Nola? Hegazkin ordu mordoa sartuz.

# “Munduari bira emateko 15 hegaldi eta 70 hegazkin ordu erabili ditugu”



**Mundua zeharkatzeko Interrail txartela modukoa erabili duzue; trenaren ordez hegazkina erabiliz, ezta?**

Antzerako zerbait, bai. Bidaia-pakete bat kontratatu genuen Alemaniako bidaia-agentzia batean. Honen arabera kontinente arteko bederatzi hegaldi egin genitzakeen, guk aukeratutako helmuga turistikoetara. Gero, norbera moldatu behar da herrialde bakoitzean eta herrialde barruko hegaldiak ere ez dira paketearen barnean sartzen.

**Zer turismo-helmuga aukeratu zenituzten?**

Ameriketako Estatu Batuak, Fiji, Zeelanda Berria, Australia eta Hong-Kong. Frankfurtetik abiatu ginen hegazkinez eta London eta New York pasa ostean, lau egun egin genituen Los Angelesen, Hoolywood-eko glamurra ezagutuz. Estatu Batuak atzean laga eta Ozeano Barean dauden Fiji uharteetara joan ginen. Handik uharte handiagoetara, Zelaanda Berrira (10 egun), eta hemendik kontinente baten tamaina duen uharte are handiagora, Australiara. Kanguroen lurraldean 20 egun eman eta Hong Kong-en, Txinan, pasa genituen azken egunak Londonera itzuli aurretik.

**Norekin egin duzu bidaia?**

Alemanian ezagutu nuen lagun batekin, Christoph-ekin joan naiz. Stuttgartekoa da bera. Berarengandik sortu zen aukera, bere arrebak aurrez egina baitzuen. Alemanian ezagunagoa da bidaia modu hau. Bidean topatu ditugun ingeles bidaiari kopuruarekin ere txundituta geratu gara. Baliteke, arrazoia, pasa ditugun herrialdeak ingeles koloniak izandakoak izatea. Autoa ezkerretik gidatzera ohitu gara, behintzat.

> **“Hong Kong-en tifoi bat zer den ezagutu genuen”**

**Ekialdetik mendebaldera eman diozue bira munduari?**

Bai. Gehienek ekialderantz abiatuta egiten dute, eta hau da norabide normala, ordu aldaketen ondorioz egunak irabazten baitira. Guk alderantziz egin dugu,

egunak galduz. Abantaila bat dauka, ordea, arratsalde-iluntzean iristen ginen helmugara eta lo egiteko errazagoa zen.

**Zure bizitzako bidaia izan al da?**

Dudarik gabe. Lagunak serioski proposatu zidanean hausnartzeko denbora lagatzeko erantzun nion. Orain edo sekula ez! pentsatu nuen, egin beharreko bidaia horietakoa zela ondorioztatu nuen. Epe laburrean asko bidaiatu, ikusi eta ikasteko aukera eman digu.

**Halere, hegazkin ordu dexente sartu behar izango zenituzten?**

Guztira 15 hegaldi izan dira: 9 paketean sartzen zirenak, 4 herrialde barnekoak eta 2 Bilbao-Frankfurt bidea egiteko. Denera 70 hegazkin ordu! Hong-Kong-etik Londonera luzeena, 13 ordukoa.

**Horrelako bidaia bat ez da merke aterako.**

Hasieran uste genuenaren bikoitza. Kalkuluekin ez genuen asmatu. Halere, bidaia txartela bera (9 hegaldiak) merke atera zaigu. Esaterako, Madriletik New York-era hegazkinez bidaiatzeak pakete honen erdia balio dezake. Ibili garen herrialdeetako gastuek igo dute kostua.



## herrialdeak...



### AUSTRALIA

"Erdialdean Ayers Rock (Uluru) mendi sakratua bisitatu genuen, desertu gorri lauan altxatzen den mendi bakarra. Aborigenen artea asko gustatu zitzaidan. Kakadu parke nazionalean Australiako fauna gertutik ezagutu genuen, kokodriloak, batez ere. Arrezife Handian urpean ibili nintzen eta Sidney egunez eta gauez ezagutu. Sidney-ko gau-giroa ezagutu genuen tabernaz taberna zihoan autobus bati esker. Benetan kuriosoa".

### ZEELANDA BERRIA

